

# **Bartzelonako Unibertsitate Autonomoaren (UAB) hizkuntza-plana 2021-2025**

## **1. Hizkuntza-planaren helburua**

Esparru-estrategiko bat edukitzea UAB-en 2021-2025 aldirako hizkuntza-politikarentzat honako eremu hauetan: irakaskuntza, mugikortasuna eta harrera, ikerkuntza eta hartu-emanak, erakundeak eta kudeaketa.

## **2. Aplikazio-eremua**

Bartzelonako Unibertsitate Autonomia Halaber, UAB-en nahia da planaren zenbait irizpide modu subsidiarioan aplikatzea UAB-ek partaidetza nagusia duen erakundeetan eta aplikazio hori, orientazio gisa erabiltzea Unibertsitateak aintzat hartzen dituen erakundeetan.

## **3. Iraupena**

Planaren iraupena bost urtekoa izango da, 2021eko uztailetik 2025eko abendura.

## 4. Planaren tipologia

Hizkuntza-plana esparru orokor gisa ulertzen da, bide-orri bat, eta eremu bakoitzak hura gauzatzeko mekanismoak zehaztu behar ditu, hots plan espezifikoa, bakoitzaren berezitasunei jarraikiz.

## 5. Egitura eta edukiak

Jarraian zehazten diren elementuetan oinarrituz antolatuko da Plana.

### 5.1. Esparru orokorra

UAB-en hizkuntza-plana honako esparru orokorrean oinarritzen da.

Katalana Kataluniako eta hezkuntza maila guztietako hizkuntza propioa (eta ofiziala gaztelaniarekin batera) da, beraz, UAB-en hizkuntza propioa da. Hizkuntza propioa izatea Unibertsitateko bikaintasun eta talentu-kaptazio eta -fidelizazio helburuak lortzeko elementu-gakoa da gaitasun linguistikoa ezinbestekoa delako garapen pertsonalerako eta profesionalerako. Bestalde, UAB unibertsitate kataluniar gisa, katalanaren erabilera eta dibulgazioa zein katalanez egindako produkzio zientifikoa hobetzen ziurtatzeaz arduratzen da. Gainera, Unibertsitateak okzitaniara babesten du ere, aranera ofiziala baita Katalunian.

UAB espainiar filologiaren erreferentziazko zentroa izanik, gaztelania du bi hizkuntza ofizialetako bat. Ingelesarekin batera, talentua kaptatzeko eta fidelizatzeke eta Unibertsitatearen nazioartekotasun eta bikaintasun helburuak lortzeko ezinbesteko hizkuntza.

Nazioarteko erkidego akademikoan hizkuntza franko bihurtu da ingelesa. Hizkuntza franko izatean, geroz eta gehiago erabiltzen da Unibertsitateko eta zenbait ingurune profesionaletako jardueran laneko hizkuntza eraginkor gisa, eta horregatik, ingelesa, gure ikasleen garapen akademikorako funtsezko aktiboa da.

Nazioarteko erkidego akademikoan ingelesak hizkuntza franko gisa duen rola ukaezina den arren, frantsesak ere badu bere garrantzia Unibertsitatearen nazioartekotasun estrategian, arrazoi geostrategikoengatik, gertutasunagatik eta tradizioagatik.

Gainera, frantsesa bezala, alemana, italiara edo portugalera (beste batzuen artean) ere estrategikoak dira erreferentziazko hizkuntza giza ezagutzaren zenbait eremutan eta zenbait ingurune profesionaletan.

Halaber, zenbait lanbidetan garrantzitsua da gaitasun eleaniztuna.

Gaur egun, garrantzitsuak dira baita ere Asia ekialdeko hizkuntzak (txinatarra, japoniarra eta koreera batez ere), Txinak, ekialdeko Asiako beste herrialde batzuekin batera, munduko ikuspegi geostrategikoan duen rola kontuan hartuta. Arabiarra ere garrantzitsua da Mediterraneoko hegoaldetik Asiako mendebaldeko zati handi bateraino hedatuta dagoen hizkuntza delako.

Azkenik, Unibertsitatearen aktibo garrantzitsuetako bat bere kapital-linguistikoa da: hasiera-hasieratik, unibertsitate kontzeptua eleaniztasunarekin lotu da, aberastasun faktore gisa, ezagutza sortzen eta kontsumitzen duten pertsonen arteko gertutasuna sustatzeko. Elkarrekin bizi diren hizkuntzek eta kulturek unibertsitate-erkidegoa aberasten dute eta, beste alde batetik, hizkuntzekin lotutako ikasketa, zentro, institutu, ikerkuntza-talde eta zerbitzuak ikerketa, ezagutza hartu-eman eta berrikuntza iturri dira eremu honetan.

## **5.2. Ikuspegia, misioa eta balioak**

### **Ikuspegia**

Unibertsitateen artean kalitate-eredua da UAB irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ezagutzaren hartu-emanen eta erakundeen komunikazioetan hizkuntza eta komunikazio eraginkorrari dagokionez.

Tokiko eta nazioarteko erreferentea da Unibertsitatean eleaniztasunaren gobernantza ereduaren eraikuntzan eta aplikazioan eta jasangarritasun linguistikoarekiko konpromisoan.

Hizkuntzen irakaskuntzaren eta ikaskuntzaren erreferentea da ingurune metodologiko berritzaileetan eta unibertsitate-erkidegoaren beharrei egokitutako eskaintza malguan.

## Misioa

Hizkuntza propioak eta ofizialak izanik UAB katalanarekiko eta gaztelaniarekiko konpromisoa duen unibertsitatea da, eta ingelesaren erabilera sustatu nahi du erkidego zientifikoaren hizkuntza franko gisa. Halaber, beste hizkuntza batzuen ikasketa sustatu nahi du, zaindu beharreko ondarea den ingurune eleaniztasun batean.

UAB-ek Unibertsitatearen ekintzen kalitate eta komunikazio linguistikoa hobetu nahi ditu irakaskuntzan, ikerkuntzan eta hartu-emanetan eta unibertsitate-erkidegoko gaitasun linguistikoa indartu nahi ditu.

Hizkuntza-politikaren esparruan UAB-en misioa garatzeko helburuak eta ekintzak zehazten dituen tresna da hizkuntza-plana.

## Balioak

Hizkuntza-plana balio hauetan oinarritzen da:

- ▲ Katalana sustatzea irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ezagutzaren hartu-emanetan, hizkuntza propio eta ofizial gisa.
- ▼ Gaztelania ere hizkuntza ofizial gisa onartzea, irakaskuntzan, ikerkuntzan eta ezagutzaren hartu-emanetan erabiltzen delako eta garrantzitsua delako UAB-en nazioartekotasunean.
- ▲ Ingelesa sustatzea nazioarteko erkidego-akademikoan, irakaskuntzako, ikerkuntzako, dokumentazio administratiboko eta erakundeen komunikazioetako hizkuntza franko gisa.
- ▼ Unibertsitatearen eleaniztasuna eta unibertsitate-erkidegoaren kulturarteko gaitasuna onartzea UAB-en identitate bereizgarri gisa eta era berean, UAB-en nazioartekotasunerako aktibo estrategiko gisa.
- ▲ Hizkuntzen estatusetik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak linguistikoen eraginkortasuna: katalana hizkuntza propio gisa eta katalana eta gaztelania hizkuntza ofizial gisa eta; garrantzitasuna Unibertsitatean erabiltzen diren hizkuntzekin lotuta, batez ere, katalanarekin, gaztelaniarekin eta ingelesarekin, baina baita beste hizkuntza batzuekin ere, testuinguru espezifikoetan.

### 5.3. Helburu estrategikoak

UAB-en Hizkuntza-planaren helburu estrategikoak Unibertsitateak jarraian aipatzen denarekin zehazten dituen helburu-estragikoekin parekatuta daude:

- Disziplina anitzeko irakaskuntza eskaintza, eleanitza eta gizartearen beharrei erantzuteko gai dena, ikerkuntzaren eta eredu pedagogiko berritzaile eta kalitatezkoen laguntzarekin.

Hizkuntza-planaren helburu estrategikoak honako hauek dira:

**1**

Unib ertsitate-erkidegoa osatzen duten talde guztien gaitasun linguistikoa eta kultuarterkoa monitorizatzea eta areagotzea.

**2**

Unibertsitatearen erabilgarritasun linguistikoa areagotzea bere erkidegoarekin, ikasle izango direnekin eta nazioarteko langile akademikoekin lotuta.

**3**

Ira kaskuntza eleaniztun berritzailearen garapena sustatzea.

**4**

Ingelesez, katalanez eta gazteleraz, eta zenbait eremutan garrantzitsuak izan daitezkeen beste hizkuntza batzuetan, argitaratzen den ikerkuntza-kantitatea areagotzea.

**5**

Unibertsitatearen ekintzen eragina optimizatzea hedapen-dokumentuen kalitate linguistikoa bermatuz.

## 5.4. Ekintza-ardatzak

Hizkuntza-plana lau ekintza-ardatzetan oinarritzen da:

Erakunde- eta kudeaketa-ardatza.	Irakaskuntza-ardatza.
Ikerkuntza- eta hartu-eman-ardatza.	Mugikortasun- eta harrera-ardatza.

## 5.5. Ekintzak

Ekintzen edukiak helburu-estrategikoetan oinarrituz zehazten dira (ikusi 5.3 atala). Ekintza hauek Planaren iraunaldia lorgarriak izan beharko dira eta lau mota desberdinetakoak izan daitezke:



- ▲ laguntza linguistikoa (zuzenketa, itzulpena, prestakuntza),
- ▼ diagnostikoa eta akreditazioa,
- ▲ erregulazioa,
- ▼ jarduera akademiko eta zientifikoaren alderdi linguistikoa sustatzea.

Urtero ekintza-plan bat zehaztuko da. Urtez urte gauzatuko da eta une oroko beharrei lehentasuna emango zaie erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera.

## 6. Jarraipena egitearen arduraduna

Gobernu Kontseiluaren ordezkari den, Nazioarteko Harremanen eta Hizkuntza-Politikaren Komisioak Hizkuntza-plana onartzen du eta haren jarraipena egingo du.

Hizkuntzen Zerbitzua da planari laguntza teknikoa eta kudeaketakoa eskainiko dion erakundea.



Dekanoa edo zuzendaria ordezkatu duen zentro bakoitzeko hizkuntza-linguistikoaren arduraduna izango da Plana zentroan inplementatzeko eta hizkuntzarekin lotuta sortzen diren zalantzak edo gertaerak bideratzeko arduraduna.

## **7. Beharrezko baliabideak**

Hizkuntza-planaren esparruan, urtero garatu beharreko ekintzen aurrekontu prebisioa egiten da. Ekintza batzuei lehentasuna ematen zaie, nahikoa aurrekonturik ez badago, ekintza garrantzitsuenak behintzat aurrera eraman ahal izateko.